

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUNA

Ondare Kudeaketa

Plaza Arkupeduneko 1.eko sotoan dagoen lokalaren emakida onestea, eta hori erabiltzeko eskubidea Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteari eskualdatzea, elkarteak dagozkion jarduerak burutu ditzan

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak areto bat erabiltzen uzteko eskatu du, Gasteizko Udalak sustatuta, gizarte zerbitzuan alorrekoak diren jarduerak burutu ditzan.

Abenduaren 5eko Euskal Autonomia Elkarteak Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatutakoarekin bat, gizarte zerbitzuen alorrean irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimenaren parte hartzea sustatzea da gizarte zerbitzuen sistema arautuko duten printzipio nagusietako bat.

Gure komunitatearen garapen integral eta solidarioa bermatzeko ezinbestekoa da elkarte mugimendua sustatzea, bereziki, elkarte horiek gaixotasunak dituztelako baztertuak izateko arrisku handiagoa duten pertsonak ordezkatzeko dituztenean.

Elkarteak lokalari eman nahi dion erabilera adierazi du aurkeztutako idatzian: eragindako gaixo, familia, boluntario eta profesionalen arreta eskaintzea, eta elkarteak kideei uzten zaizkien material ortopedikoen biltegia izatea.

Gasteizko udalak une honetan ez du elkarteak adierazitako beharrei erantzuteko adina azalera duen lokalik. Beraz, egoki da 21 Zabalgunek Plaza Arkupeduneko 1.eko sotoan utzitako lokala onartzea, zein 21 Zabalguneko administrazio kontseiluak 2016ko maiatzaren 25ean hartutako erabakiaren bidez utzia den, eta elkarte eskatzaileari erabiltzeko eskubidea eskualdatzea.

Hori guztia ikusita, egokitzat jotzen da Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekiko lankidetzaren hitzarmena izenpetzea, hain zuzen, Plaza Arkupeduneko 1.eko sotoan dagoen lokala jabetzarik eman gabe uzteko baldintzak arautzeko, elkarteak bertan gizarte programak burutu ditzan (katastro- erreferentzia 1322-4366-0006-0001-0047).

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio erakunde edo elkarteekin hitzarmenak onetsi edo izenpetzeko erabakia hartzea, Sektore Publikoen Kontratuei buruzko testu batekina onartzekoa den azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, beraz, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Lehena: Gasteizko Plaza Arkupeduneko 1.eko sotoko lokalaren doako emakida onestea, 21 Zabalguneko administrazio-kontseiluak 2016ko maiatzaren 25ean hartutako erabakian ezarritako baldintzetan, eta udal honetako Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean alta ematea lokal horri.

Bigarrena: Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekiko hitzarmena onestea, erabaki honen eranskinean jasoa, elkarteari xede dituen gizarte programak egiteko uzteko baldintzak arautzeko.

Hirugarrena: Erabaki hau hamabost egunez jendaurrean jartzea udaletxeko iragarki-taulan eta ALHAOn iragarrita, egoki irizten diren alegazioak aurkezterik izan dadin; epe horretan alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikotzat joko da lagapena.

Laugarrena: 21 Zabalguneak 2016ko maiatzaren 25ean egindako kontseiluan utzitako gainerrako lokalak aztertu eta onartzeko tramiteak abiarazteko agintzea, elkarteen jarduerak sustatzera bideratutako udal higiezinaren sareren balizko osaerarako, udalaren jabari publikora "zerbitzu eta erabilera publiko ondasun gisa" atxikitako higiezinak bertan sartuta, eta gerora alde aurretik dauden okupazioak erregularizatzea, kasu eta egoera bakoitzean legez dagokionari jarraiki.

Bosgarrena: Erabaki honen berri ematea Udaleko Zerga Kudeaketarako Zerbitzuari eta Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

Seigarrena: Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko hartu behar diren erabakiak hartu eta sinatu behar diren dokumentu publiko edo pribatuak sinatitzan, bai eta zuzendu ditzan ere, beharrezkoa bada.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 30ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO